<http://alternatibenherria.eus> | [kontaktua@alternatibenherria.eus](mailto:kontaktua@alternatibenherria.eus) | [@alterherria](https://twitter.com/alterherria) | [Alternatiben-Herria](https://www.facebook.com/Alternatiben-Herria)

**EN EL PUEBLO DE LAS ALTERNATIVAS, VAMOS A CAMBIAR EL SISTEMA (¡SÚMATE AL LLAMAMIENTO!)**

Un pueblo que tiene alternativas es un pueblo vivo. Para demostrar esto el próximo 24 de octubre celebraremos en Bilbao el Pueblo de las Alternativas, propuesta por la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria y como respuesta al llamamiento para organizar 10, 100, 1000 Pueblos de las Alternativas frente a la COP21 de París. Será un día reivindicativo y a la vez festivo, escaparate de las numerosas propuestas, grandes y pequeñas, que nos dan vida todos los días.

Los principales objetivos de esta iniciativa son:

- ★ Difundir que Euskal Herria como pueblo tiene alternativas y concretar ese otro modelo social.
- ★ Dar pasos en la cohesión del Movimiento Social y Sindical de Euskal Herria.
- ★ Subrayar la necesidad de movilización y activación de la sociedad para hacer realidad la transición social y ecológica.
- ★ Continuar colaborando después de celebrar el Pueblo de las Alternativas.

Nuestras vidas y la naturaleza están bajo amenaza: aumento de las desigualdades, saqueo de la riqueza social por parte del capital, cambio climático, debilitamiento de los derechos sociales, aumento de la exclusión social, despilfarro de los recursos naturales, ansia por privatizar servicios públicos, fortalecimiento del orden patriarcal, incapacitarnos para poder decidir y organizarnos, modelo de producción y consumo insostenible... Y frente a esto el capitalismo solo ofrece falsas soluciones.

Pero las personas que hacemos este llamamiento queremos demostrar que hay alternativas y que ya están en marcha, que es el sistema el que tiene que cambiar. Por eso reivindicamos un nuevo modelo de sociedad que ponga en el centro a las personas. Para vivir bien, para satisfacer las necesidades de las personas y de los pueblos, para cuidarnos y para cuidar el planeta, para cambiar el sistema dominante.

En el Pueblo de las Alternativas habrá 6 ejes, repartidos en 6 barrios. Modelo económico; naturaleza; sostenibilidad de la vida; diversidad; bien común y democracia; soberanía y participación. En estos ejes haremos visibles decenas de alternativas: economía social y solidaria, soberanía alimentaria, economía feminista, consumo responsable, procesos participativos, gestión de la diversidad...

Los firmantes de este manifiesto os invitamos a participar en el Pueblo de las Alternativas y a difundir este llamamiento. Tenemos una oportunidad única para demostrar que estamos vivos y que tenemos alternativas.

carta de los derechos sociales **euskal herriko eskubide sozialen Karta**

› GORKA QUEVEDO

**Urriaren 24an, larunbata, Bilboko erdigunera hurbiltzen den orok pankarta erraldoia ikusiko du aurrez aurre: "Ongi-etorri Alternatiben Herria"**. Lasai, ez pentsatu Bizkaiko hiriburuak izenez aldatu duenik edo hiriz erratu zarenik. Ez. Pankarta horrek

honakoa adierazi nahi du: egungo sistema bidegabe honen aurrean baditugu alternatibak, eta hori erakustera goaz. Non eta Bilboko bihotzean, egun betez gurean dauden proiektu eraldatzaile ezberdinak elkartzeko dituen hirian.

Irakurleak *Landeia* hau jasotzen duen momenturako programa guztiz itxi gabe egongo da oraindik. Dena den, lasai. Hurrengo alean -urriaren 24a baino lehenago argitaratuko dena- pro-

## Es importante llenar el 24 de octubre las calles de Bilbao. Pero también entrelazar redes entre los agentes que participan en la iniciativa, intercambiar experiencias, conocerse mutuamente... para facilitar la difusión de proyectos y experiencias alternativas

nak diren hamaika eragilek parte hartzen ari direla kontutan harturik. Baina, edozein kasutan ere, prozesu eraikitzaile eta aberasgarria.

### Egun beteko festa eta aldarrikapena izango da urriaren 24koa.

Alternatiben Herria eguna goizean goizetik hasiko da. Ongi-etorri ekitaldia 09:30tan izango da Areatzako gune zentrallean. Hortik aurrera ekimen eta ekitaldi ugari egongo dira. Egunak festa kutsua izate asmoz kale animazioa, jan-edanerako guneak edota musika ez dira faltako. Egitarau ofiziala, berriz, arratsaldeko 20:00tan itxiko da. Dena den ez pentsa eguna hor amaituko denik. Gaueko 21:00tan Areatzako karpa nagusian hasiko den erromeriak gaueko ordu txikiak arte luzatuko den festa bati hasiera emango dio.

### Bost ardatz, bost auzo.

Hasieran sei alternatiba gune edo ardatz adostu ziren arren, prozesuaren garapenak bost gune ezberdinetara eraman du ekimena; natura; ekonomia eredu; demokrazia, soberania eta parte hartzea; aniztasuna; eta ondore komuna. Europa mailako Alternatiben Herria dinamikak klima aldaketaren inguruko borrokatik sortu ziren arren, ekimena ez da puntu horretara mugatuko. Borroka hau ez da soilik klima aldaketari aurre egiteko, kapitalismoari eta sistema honi aurre egiteko ere bada. Klima aldaketa, sistema ekonomikoa eta injustizia sozialak txanpon beraren aurpegiak dira.

Aipaturiko gune edo auzo bakoitzak bere espazio propioa izango du, guztiak ere Bilboko erdigunean kokatuak. Auzo guztiek karpa propioa izango dute; gainera, lau azoka ere egongo dira, elikadura burujabetza-aren, ingurumenaren, ekonomia sozialaren eta ondore komunaren inguruan dauden alternatiba eta proiektu ezberdinen erakusgarri.

Auzo bakoitzak Alternatiben Herriak garatzen dituen ardatz ezberdinak landuko ditu. Horretarako jarduera ugari antolatu dira: hitzaldiak, mahai inguruak, azoka, tailerrak, kale ikuskizunak, jolasak... Ekintza horien bidez auzo bakoitzak lantzen dituen eduki ezberdinak jorratuko dira.

**Natura Auzoan** energia, klima aldaketa, hondakinen kudeaketa, mugikortasuna, elikadura burujabetza, kontsumoa...; **Ekonomia Auzoan** finantzak, moneta eredu, ekonomia sozial eral-

datzailea, aberastasunaren banaketa, enplegua...; **Demokrazia Auzoan** eredu ekonomiko, sozial, kultural eta politikoa, erabakitze eskubidea, parte-hartze sozio-politiko prozesuak, herrien arteko elkartzasuna...;

**Aniztasunaren auzoan** harremanak, gorputzak, jatorria, identitatea, sexua, aniztasuna...; **Ondare komunaren auzoan** euskara, hezkuntza, kultura...

### Karpa nagusia, Areatzan.

Auzo eta azoka horiei Areatzan kokatuko den gune zentrala batu behar zaie. Alternatiben Herria Bilboko erdigunean zehar zabalduko den arren Areatza izango da zentroa. Bertan egingo dira hasiera eta amaiera ekitaldiak, bazkari nagusia, izen handiko hitzaldiak -Susan Georgek eskainiko duena, kasu- edo egunari amaiera emango dion jaialdia. Eta, egun guztian zehar mokadu bat jateko edo zintzarria bustitzeko aukera ere egongo da.

Zalantzarik gabe azken urteetan eredu alternatibo baten bila lanean dihardugun eragile eta kolektiboek antolatutako ekimen handiena izango da urriaren 24koa. Horren lekuko egun horren arrakasta bermatzeko lanean bolondres arituko diren ehunka lagunak. Pentsa, Alternatiben Herriko antolaketan diharduten arduradunen arabera gutxienezko betebeharrak asetzeko 200 lagunetik gora beharko dira.

### Baina, urriaren 24an ez da ezer amaitzen.

Kontrakoa, Alternatiben Herria ez da egun bateko kontua. Prozesu honetan buru-belarri lanean aritu garen eragile ezberdinen arteko elkar-lana are eta gehiago suspertzeko abiapuntua izatea da helburua.

Ezinbestekoa da urriaren 24an Bilboko kaleak betetzea -10.000 lagun elkartzea da antolakuntzak jarritako erronka-, baina hori ez da helburu bakarra. Hori bezain garrantzitsua da Alternatiben Herria dinamikaren harira elkarlanean aritu garen eragile guztien arteko elkarlan sarea osatzea. Urriaren 24an Bilboko kaleetan jendetza biltzea garrantzitsua da, baina ziurrenik are eta garrantzitsuagoa da urriaren 25etik aurrera esperientzia eta eragile guzti hauek elkar ezagutu-ta sortuko den sarea eraikitzea, alternatibak biderkatuz eta txoko guztietara helduz.

## ¡MUESTRA TU APOYO A 'ALTERNATIBEN HERRIA-EL PUEBLO DE LAS ALTERNATIVAS'!

### Para ELA la iniciativa 'Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas' va a ser un eje central de nuestra actividad sindical en los próximos meses.

Sin olvidar, por supuesto, que esta iniciativa sólo es un punto de inflexión en el recorrido que junto a numerosas organizaciones sociales estamos recorriendo para lograr otro modelo social, económico y político radicalmente diferente al que tenemos hoy en día.

ELA realizará del 5 al 12 de septiembre asambleas comarcales para explicar todo lo relacionado con 'Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas'. También se realizará un reparto en todos los centros de trabajo a los que lleguemos del material informativo que se ha publicado sobre esta iniciativa. Además, 'Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas' dispone de diversas herramientas en la red para poder seguir las últimas novedades: página web -<http://alternatibenherria.eus>-; twitter -@alterherria; y facebook -Alternatiben-Herria-. Además, quien quiera aportar su granito de arena o tenga cualquier cosa que comentar se puede poner en contacto en la siguiente dirección de correo:


[kontaktua@alternatibenherria.eus](mailto:kontaktua@alternatibenherria.eus).

**Es imprescindible llenar el sábado 24 de octubre el centro de Bilbao.** Será un día reivindicativo y festivo a la vez, escaparate de las numerosas propuestas, grandes y pequeñas, que nos dan vida todos los días. Tenemos una oportunidad única para demostrar que estamos vivos y que tenemos alternativas.

**Nota: quien quiera apoyar esta iniciativa con su firma es bien fácil. Basta con entrar en la página web - <http://alternatibenherria.eus> - y rellenar el espacio dedicado para que todas las personas que lo deseen puedan mostrar su adhesión. Ya son muchas las personas que lo han hecho. ¡Anímate!**

# “Liburua belaunaldi baten kontu-ematea da”

GERMAN KORTABARRIAK 1976TIK 2006 URTE BITARTERA ELAREN IBILBIDEA KONTATZEN DUEN 'GAUZAK (ERE) HORRELA IZAN ZIREN' LIBURUA IDATZI DU



› GORKA QUEVEDO

**1976. urtean belaunaldi berri batek hartu zuen bere gain ELA sindikatu historikoaren ardura. Gazte horietako bat German Kortabarria Igartua (Oñati, 1949) izan zen.**

Kortabarria sindikatuan ardura ezberdina izan ditu. Berriki *Gauzak horrela (ere) izan ziren* idatzi du, ELAren ibilbidea kontatzen duen liburua.

**-Hamarkadetako klandestinitatearen ostean 1976. urtean ELAren proiektua bere gain hartu zuen belaunaldiko kidea zara. Nola oroitzen dituzu urte horiek?**

-Liburuaren hasieran 60ko hamarraldia eta gure taldearen eta ELA historikoaren arteko batasun prozesua azaltzen dira. ELAk zer izan behar zuen -sindikatu hutsa ala zerbait gehiago- eta nolako ezaugarri ideologiko eta organizatiboak izan behar zituen definitzeko fasea izan zen, 1976ko III. Kongresuan gauzatu zena. Hortik aurrerako lehen urteetan bizi-iraupenak jan zituen ELAren ahalegin asko: zalantzas beteriko marko berri eta sigla sindikal ugarien oihanean lekua egin beharra, aldi berean proiektuaren ezaugarriak galdu gabe

eta krisi industrialak eragindako egoera makurrei ahalik eta hobekien erantzuten saiatuz.

Klandestinitate zetorren militante multzoak dena eman zuen sindikatuaren biziraupena eta garapena ahalbidetzeko. Askok lan erosoagoak eta hobe ordaindutakoak utzi eta ELAk behar zituen leku eta eginkizunetarako urratsa eman zuten.

Baina, hori esanda, zerbait eraikitzen ari zarenean euforiak indar handia ematen dizu. Hain zuzen, liburua belaunaldi horren oroitzapen eta aldarrikapena da, hein batean.

**-Denbora gutxian ELAk hazkunde handia izan zuen; III. Kongresuan -1976-3.000 afiliatu izatetik 1977 urte amaie-**

**“Desde el primer momento el objetivo fue desarrollar una organización fuerte en todos los aspectos para poder crecer como sindicato”**

**“El libro pretende ser un reconocimiento a una generación que lo dio todo para sacar adelante el proyecto de ELA”**

**ran 43.490 izatera heldu zen; hauteskuntzetan, ere, lehen sindikatua izatera iritsi zen 1980 urterako. Zeintzuk izan ziren horren arrazoiak?**

-Euskadin euskal sindikatua zioten kartelak jarri genituen, oraindik klandestinitatean. Mezu horrek erantzun ona jaso zuen, euskal langile askok horren premia ikusten zutelako, eta ELA historikoaren oihartzunak ere bere eragina izan zuelako. Horrekin batera erabakigarria izan zen ELAk berehala antolatu zuen egituraren helmena.

**-Hazkunde horrek argi uzten du zer edo zer ondo egin zela...**

-Haztearekin batera, ELAren zuzendaritzak -Alfonso Etxeberria buru- sindikatua organizazio sendoa bihurtzen asmatu zuen, baita ekonomikoki ere. Horregatik eutsi ahal izan zitzaion hasierako boomaren ondorioz lortutako mailari.

**-Moncloako Itunak, Gernikako Autonomia Estatutua, Nafarroako Amejoramentua, Lan Harremanen Kontseilua, Langileen Estatutua... ELAk instituzionalizazioaren aldeko hautua egin zuen. Nola oroitzen dituzu garaioak?**

-Moncloako Itunetan agerian geratu zen UGT eta CCOOren menpekotasuna, alderdi paraleloek behartuta langileen interesen aurkako neurriak onartu baitzituzten. Aldi berean ELAren independentzia nabarmendu zen, askoren harridurarako, tradizionala EAJren eragin politikoaren eremuan kokatzen zen sindikatuak EAJk babestutako Itunei ezezko borobila eman zirenean.

Gernikako Estatutuaren garaian, Langileen Estatutua ere eztabaidatzen ari zen, euskal sindikalismoak izango zuen marko legala zegoen jokoan... Hori zen ELAren ardura nagusia. Gernikako Estatutua zalantza handirik gabe onartu zen, zituen hutsuneen jakitun izan arren. Sinetsita ginen edota sinetsi nahi izan genuen, gehiegizko baikortasunez, bistan denez, hura lehen urratsa zela eta ondoren urrats gehiago etorriko zirela.

Bestalde, nazio proiektua sendotzeko geure egituren garrantzia ikusten zuen ELAk, eta bere arduratzat hartu zuen marko berrian lan harremanei zegokien lekua bermatzea, hori baitzen sindikatuari zegokion egin behar nagusia nazio egituraketan.

**-Liburuan hitzez hitz jasotzen denez, 80. hamarkada aurrera joan ahala ELA "Konstituzioak eta Estatutuak osatutako markoen ajeetz" konturatu zen.**

-Ez gara oso erakunde azkarra izan, ez ditugu aldaketak egun batetik bestera egin. Liburuaren hasierako eta amaierako ELAren arteko aldaketak oso apurka eman dira, errealitatearekin kontrastean. Ez dira izan buru-argi batzuen ideia disiritsuak. Estatutuaren eta horrek zekarren markoaren, instituzioen, aliantza tradizionalen edo negoziazio kolektiboen eredu tradizionalaren alde egin genuen bere garaian, eta horietako apustu bakoitza azkeneraino eramaten saiatu ginen. Baina gauzak uste eta nahi bezala ateratzen ez direnean, posizioa aldatu beharra dago.

90eko hamarkadaren erdialdean, EAJren barne-zatiketa ondorioz, PSE sartu zen Jaurkitan. Lakuaren autogobernu-garra zeharo apaldu zen; aldi berean Estatutuak ber-zentralizazio prozesua abiatu zuen. ELA ikusten joan zen euskal instituzioetan garai bateko sua itzaltzen ari zela eta, hamaika ahalegin egin zituen arren, markoaren mugekin egin zuen aurrez-aurre.

ELAk parte-hartze instituzionalerako eraturako mahai eta batzordeei buruz zuen jarrera ere aldatu zuen, ikusten joan baitzen erakundeok ez zutela eraginik langileen aldeko politiketan, eta gobernuak euren politikak zuritzeko erabiltzen zituztela. Parte-hartze instituzionalaren eskasiak beste aukera batzuk jorratzera eraman zuen sindikatua, kontra-boterearen eremurako bidea jorratzera, hain zuzen ere.

Negoiazio kolektiboari buruz ere gauza bera. ELAk urte luzez eredu tradizionalaren ildoari jarraitu zion, besteak beste bere esparrua defendatu behar zuelako: negoziazio esparrua bermatzea obsesio bihurtu zen, bestela urik gabeko arrain bihurtu baitzitezkeen sindikatua. Esango nuke hori zela ELArentzat Lan Harremanen Kontseiluaren eginkizun nagusia. Hala ere, 90. hamarkadan argi ikusi zen eskema horrek ez ziola erantzuten lan munduaren errealitate berriari, eta ELA beste negoziazio kolektiborako eredu baten bila hasi zen.

**-Prozesu horretan zehar ELAK bere ohiko bidelagunak utzi eta aliantza berriak landu zituen. Nola izan zen prozesua?**

-Urteetan UGT eta CCOO izan genituen aliatu. Harremanak ez ziren onak, eredu ezberdinak genituen, baina ez zen beste aliantza aukerarik ikusten, ziurrenik beste aukerarik ez zegoelako. 90. hamarkadan, ELAren zein LABen ebolu-

## “El éxito de ELA no se puede entender sin el trabajo de todos aquellos militantes que venían de la clandestinidad”

zioaren ondorioz, bi sindikatuen arteko elkarlanerako aukera sortu zen. ELAk praktikan jarri zuen printzipio gisa aldarrikatutako abertzaleen arteko elkarlana, gorabehera handiekin izan bazen ere.

**-Gai nazionala ELAren jardunaren beste ardatzetako bat izan da. Zein balorazio egiten duzu urte horietan zehar bizi izandakoaz?**

-1988. urtean zuzendaritzan eman zen aldaketak jarrera aldaketa ekarri zuen: bere gauzetara oso emana zegoen erakundeak III. Kongresuan hartutako nazio konpromisoak benetan gauzatzeko erronkari heldu zion. Konpromiso horren barruan ulertu behar da, hein batean, LABekin batera jorratutako ibilbide sindikal eta politikoa, eta gatazka armatuaren konponbiderako elkarriketa eta negoziazioaren alde hartutako jarrera argia. Ez da ahaztu behar Ezker Abertzalea isolatzera deitzen zuen Ajuria-Eneako Mahaiaren garaia zela eta ELAk, aldiz, elkarriketaren eta konponbidearen alde egin zuela. Bi sindikatuen arteko harremanak ez bairik gabe erraztu zituen beste harreman batzuk eta, azken batean, baita Lizarra-Garazirako bidea ere.

**-Gezurra badirudi ere, Lizarra-Garazik ELA eta LABen arteko harremanaren txartzea ekarri zuela diozu liburuan.**

-Lizarra-Garaziren garaian kale egin zuten gure bi lan-hipotesik. Lehen hipo-

tesia LABekiko kolaborazioa sakontzearena zen, estrategia konpartitzera iritsi arte: bi organizazio, estrategia bat. Horrek izugarritzko indarra emango lioke euskal sindikalismoari. Gure eztabaidarako gai-proposamenari Mallabian LABek eman zion ezezkoak eta ondorengo azalpen itsusiak -ELAK LAB irentsi nahi zuela azaldu zioten bere jendea-ri- asko mindu gintuzten, baina balio izan zituzten behingoz geureganatzeko LABentzat *mugimendua* izango zela gerora ere ildo estrategikoaren erabakigunea eta guk erabat autonomoa nahi genuen sindikatuen arteko gunea bigarren mailakoa eta, gai askotan, gune nagusiaren osagarria baino ez zela izan-go.

ETAk borroka armatuarekin behin-betiko amaitzeko erabakia hartua zela ere sinetsi genuen, Lizarra-Garazi aurreko su-etena eman zenean. Bistan da oker geundela.

Lizarra-Garazi ostean -LABekiko harremana oso mugatuta, eta Ezker Abertzale politikoa eta sozialaren jokabidea erakunde armatuaren erabakiek, konpartitu ez arren, zeharo baldintzatzen zutela- ELAK askoz zuhurrago jokatu zuen Ezker Abertzaletik zetozen ekimenean aurrean; ez zen, jada, Lizarra-Garazirako bidean, une oso gogorretan -ETAk sindikatuko afiliatuak hiltzen zituela- elkarriketa eta negoziazioaren alde erabat konprometitu zen erakundea; Lizarra-Garaziko su-etenean amaierak behin-betirako erakutsi zion ELAri euskal auziaren erdian kokatuta zegoen arazo urgenteena, hau da, borroka armatuarena, ETAk bere logika propioari jarraituz ezbatzi zuela, besteok esan edo egin genezakeenaren gorabehera; ELA ez zegoen gertu, ordea, adostasunaren izenean eztabaida estrategiko zentrala saihesten zuten ekimenean inplikatzeko.

**-Gorabehera politikoa askotako urteak...**

-Bai. Urte horietakoa da Ibarretxeren proposamena ere. ELAk begi onez ikusi zuen formulazioa, bere akats eta mugekin. Baina ez zuen ikusten Ibarretxe proposamena aurrera eramateko behar zituen aliantzak lantzen, bere eginbide politikoa neoliberalak proposamenaren kontra zegoen patronalaren alde eta alde izan zitezkeen indar sozialen aurka egiten baitzuen. Bere alderdiaren babesaren aho txikiarekin emandakoa zelakoan nago, Josu Jon Imazek EBBko lehendakaritza hartu zuenetik Ibarretxe Plana matraka gogaikarria bihurtu zelakoan zuzendaritzarentzat, al bait arinen amaitu zedin nahi zuena.

Ibarretxek aukera bat alperrik galdu zuen. Madrilera eta epaitegiek utzi zioten punturaino bere proposamena aurrera eramaten saiatu zen, baina ez zuen garatu hain ambizio handiko proiektua aurrera ateratzeko ezinbestekoa zen gizarte babesa eta mobilizazioa.

## HISTORIA VIVA DE UNA GENERACIÓN DE SINDICALISTAS

**En 1976, tras cuatro décadas de clandestinidad,** una nueva generación de sindicalistas tuvo la responsabilidad de coger las riendas de ELA. Uno de esos jóvenes fue Germán Kortabarría Igartua (Oñati, 1949).

Ahora, acaba de publicar el libro *Gauzak horrela (ere) izan ziren*, en el que se analiza la trayectoria de ELA desde 1976 hasta 2006, años en los que Kortabarría ocupó diferentes responsabilidades dentro del sindicato.

Un libro imprescindible para conocer mejor la historia reciente de nuestro sindicato.

# “En marcha hasta que todas seamos libres”

ELA LLAMA A PARTICIPAR ACTIVAMENTE EN LA CUARTA ACCIÓN INTERNACIONAL DE LA MARCHA MUNDIAL DE LAS MUJERES, QUE RECORRERÁ EUSKAL HERRIA DEL 28 DE SEPTIEMBRE AL 4 DE OCTUBRE



› J. JAIO

**Desde el 8 de marzo -con inicio en el Kurdistán turco- y hasta el 17 de octubre -que concluirá en Coimbra, Portugal- una caravana feminista recorrerá Europa bajo el lema “Nuestros cuerpos, nuestros territorios. Seguiremos en marcha hasta que todas seamos libres”.**

Se trata de la cuarta acción internacional de la Marcha Mundial de las Mujeres, que se realiza cada cinco años. Esta caravana pasará por Euskal Herria la semana del 28 de septiembre al 4 de octubre, donde tendrán lugar numerosos actos e iniciativas. De esta cuarta acción internacional y de las principales preocupaciones del área de Igualdad del sindicato hablamos con Jone Bengoetxea, responsable de la misma.

**¿Cuáles son los objetivos de esta cuarta acción internacional de la Marcha de las Mujeres?**

En primer lugar, desvelar y denunciar las distintas formas de violencia que vivimos las mujeres, identificando a los actores que promueven las opresiones.

En segundo lugar, promover y visibilizar las alternativas de vida que las mujeres ya estamos construyendo en oposi-

**Militantes de ELA en la jornada del 30 de junio. En primera fila -2ª y 3ª a la izda, respectivamente- Jone Bengoetxea y Leire Txakartegi**

ción a un sistema capitalista, patriarcal, racista y heteronormativo, con acciones que refuercen la solidaridad, la alegría y la creatividad e inviten a todas las mujeres a salir a manifestarse.

En tercer lugar, mostrar al mundo cómo las mujeres estamos resistiendo y que no pararemos hasta que podamos decidir sobre nuestros cuerpos, afirmando que es posible crear y vivir de otra manera, construyendo colectivamente y de forma libre.

Finalmente, ampliar y fortalecer a nuestro movimiento desde las comuni-

**Martxoaren 8tik urriaren 17ra bitartean karabana bat ibiliko da European zehar, honako leloarekin: “Gure gorputzak, gure lurraldeak. Martxan jarraituko dugu guztiok aske izan arte”**

dades, desde lo local, nacional, regional e internacional, con acciones de calle, incluyendo a más mujeres, con formación política y en alianza con otros movimientos sociales.

**-El pasado 30 de junio mujeres de ELA participaron en la acción simbólica de sembrar semillas. ¿Cómo fue la jornada y que perseguía?**

-Tenía un claro componente simbólico: evocando nuestra lucha por la soberanía alimentaria se trataba de sembrar en diversos lugares (casa, balcón, baserri, huertos rurales y urbanos, parque, local, campo, ciudad, bosque...) nuestras reivindicaciones y luchas feministas. Las mujeres de ELA, en concreto, nos acercamos hasta el parque del Guggenheim a plantar unas macetas que ahora están en la terraza del sindicato.

La propuesta era que cada colectivo o persona fotografiara su siembra y la compartiera en el blog de la marcha. Después, la caravana feminista, a su paso por los diferentes pueblos, recogerá tierra de esas siembras realizadas que representarán la unión de las diferentes luchas de las mujeres de Euskal Herria para después traspasarla a los siguientes territorios.

**-Además de esta acción, ¿de qué manera está participando ELA en la Marcha?**

-Vamos a tratar de movilizar al máximo de delegadas y militantes en los pueblos y comarcas para que las reivindicaciones de la diversidad y pluralidad de las mujeres de Euskal Herria esté presente. No sólo desde el área; el sindicato, de manera integral, debe volcarse para que la Marcha movilice a numerosas mujeres.

**-¿Cuál es el estado de salud de La Marcha Mundial de las Mujeres de Euskal Herria?**

-Yo diría que óptimo. Hace un año iniciamos en la Plataforma un proceso de reorganización para atraer más mujeres a la misma; y ha sido un éxito porque lo cierto es que se han sumado numerosas organizaciones de mujeres migrantes, entre ellas, Mujeres del Mundo, Brujas y Diversas o Garaipen, por mencionar algunas.

Sin duda, uno de los puntos fuertes de la Marcha Mundial de Mujeres de E.H. es su diversidad, aunque ello tiene también otra cara que es la dificultad de coordinación. Para ELA, esta Plataforma es un espacio de conocimiento e intercambio

mutuo de experiencias lleno de potencialidades; el reto es poder plasmar ese intercambio en un trabajo conjunto.

En ese sentido, creo que merece la pena mencionar el hito que ha sido que en las últimas huelgas generales se haya llamado también a una huelga en los cuidados. Todos y todas recordamos las mandalas -los delantales- colgados en los tendederos y balcones de muchas casas. Ese acto simbólico es resultado de un trabajo conjunto para extender que no existe sólo el trabajo asalariado.

**-¿Cómo animarías a cualquier mujer que te esté leyendo a participar en la Marcha Mundial de las Mujeres de Euskal Herria?**

-Esta marcha es popular, de base, anti-capitalista y feminista en la que los sindicatos jugamos un papel importante. Cuando las mujeres nos conectamos entre nosotras vemos que sufrimos las mismas discriminaciones.

El planteamiento es de acción, de visibilizar y apostar por otras formas de movilización. De la mano de la caravana llegarán a los pueblos teatro, comidas populares... otras formas de movilización social. Creemos que un enganche enorme de la Marcha es su alegría; y una convicción: marchar hasta que todas seamos libres.

**Zaintzarekin eta ugalketarekin lotutako ekonomia guztia emakumeen esku dago, baina ez da Barne Produktu Gordinean jasotzen**

**-¿Cómo repercute la Marcha en el sindicato?**

-Sin duda, es una oportunidad para el sindicato, para atraer e incorporar más mujeres a la dinámica de los grupos de género de ELA.

Hasta ahora nuestros grupos de género se mueven mucho en la formación pero queremos que adquieran otro rol dentro del sindicato.

**-De lo concreto a lo general: ¿cómo se ha cebado la crisis en las mujeres?**

-Las crisis siempre se ceban más con los más débiles, y es una realidad que las mujeres están siendo las principales paganas de la actual. Hay que hablar de la división sexual del mercado de trabajo, que impone de partida una enorme brecha salarial; del importante incremento de los contratos a tiempo parcial que convierten a las trabajadoras en pobres a pesar de tener trabajo y que están copados por mujeres; de los recortes en el sector público y de la falta de infraestructuras públicas de cuidados, que afectan a las mujeres, funda-



mentalmente... Si a eso le sumamos, por dar un dato terrible, que la violencia machista se cobró sólo en la primera semana de julio cuatro vidas de mujer y que cada semana conocemos agresiones sexuales a mujeres... A veces parece que la sociedad ha aceptado que es un destino marcado.

Toda la economía de cuidados y reproductiva está en manos de mujeres, y no se recoge en el PIB.

**-¿Retos del Área a más corto plazo?**

-Los más inmediato es hacer un buen trabajo en la Marcha Mundial y Alternatiba; poner nuestro grano de

arena en el éxito de tan importantes citas de alternativas.

Además, seguir trabajando en ir creando conciencia feminista dentro del sindicato. Porque a lo largo de los últimos años hemos logrado importantes victorias sindicales protagonizadas por mujeres, sobre todo en el sector de los cuidados: Ariznavarra, trabajadoras de las residencias de Gipuzkoa... Han sido luchas en las que se ha hecho feminismo sin conciencia feminista. El siguiente paso es hacerlo conscientemente. Hacerlo conscientemente, por ejemplo, es que no haya una plataforma reivindicativa que no ponga el foco en todas aquellas cuestiones que faciliten la conciliación y los cuidados.

El sindicato no puede conformarse con tener más mujeres, debe tener una visión feminista porque el cambio social o es feminista o no es. El sindicato tiene que dar pasos más allá. Si el sindicato no es feminista está cojo.

Tampoco podemos olvidar que estamos inmersos en un proceso de cambio organizacional proequidad de género. Nos queda mucho trabajo por hacer. A todas y a todos.

**ZEIN DA MARTXAREN JATORRIA.** 1995ean, Quebec-eko emakume-mugimenduak martxa bat egin zuen, Ogiaren eta Larrosen Martxa, eta 15.000 pertsonak egin zuten bat horrekin, hamar egunez. Babesa ez zen soilik bertako jendearengandik etorri; aitzitik, martxak eragin handia izan zuen nazioartean. Hori dela eta, 2000. urtean martxa modu zabalean deitzea erabaki zen, mundu-mailan, demokrazia, itxaropena, berdintasun eta bakea aldarrikatzeko.

**ZERGATIK ANTOLATU ZEN?** Emakumeak zirelako politika neoliberal basatien biktima nagusiak, herrialde askotan emakumeak ari zirelako oinarritzko eskubideen alde borrokan, emakumeen kontrako indarkeria areagotzen ari zelako eta errealitate horiei guztiei aurre egin behar zitzaielako.

**ZER ALDARRIKATZEN ZUEN?** Martxak bi gai bildu zituen, mundu osoko feministak ados baitaude horien inguruan: pobrezia eta indarkeria sexista. Dena dela, ez ziren gai horiek bakarrik jorratu, beste alderdi batzuek ere jardun zen, besteak beste formazio- eta hezkuntza plan osoko baten beharraz, kontzientiazio feminista aktibatze aldera. Gainera, helburu taktikoago bat ere ezarri zen: mundu-sare feminista bat sortzea, hala globalki nola lokalki eragin dezan.

**NON ETA NON HASI ZEN MUNDU MARTXA?** 2000. urteko martxoaren 8an abiatu zen Quebec eta Genevan, eta New Yorken amaitu zen. Euskal Herrian ere izan zuen eraginik, hain zuzen, plataforma anitz bat osatu zuten 44 talde inguruk. Ekainaren 17an eta urriaren 7an hainbat ekintza egin ziren Euskal Herriko hainbat txokotan (antzerkia, idazleen egunak, manifestaldiak), eta, amaitzeko, manifestaldi nazionala egin zen Donostian. Era berean, hainbat udaletxetan mozioak aurkeztu ziren atxikimenduak lortzeko asmotan, eta Bruselara martxa antolatu zen, Europako mobilizazioa babesteko.

Lortutako eragina eta babesa ikusita, bost urtean behin mundu-ekintza handi bat egitea erabaki zen.

**ZER EKINTZA-EREMU JORRATU ZIREN?** Hainbat herrialdeetako milaka emakume mobilizatu ziren, honako lau ekintza-eremu hauen barruan ezarritako eskakizun eta proposamenen harira: 1. Guztion ongizatea eta elikadura-burujabetza. 2. Bakea eta desmilitarizazioa. 3. Emakumeen lan ikusgarria eta ikusezina. 4. Emakumeen kontrako indarkeria, horien gorputzak, bizitza eta sexualitatea kontrolatzeko tresna modura.

2004ko abenduan, Kongon, hainbat herrialdeetan egindako eztabaida-prozesu luze baten ondoren, adostasuna lortu zen eta honako hau onartu zen: *Emakumeen Gutuna Gizateriarentzat*. Urte horretan, New Yorken hasi zen Martxa, eta urriaren 17ra arte, herrialdez herrialde pasatu zuten Gutuna, lekuko bat bezala.

# IRUDI BAT BAINO GEHIAGO



› GORKA QUEVEDO

**E**z dakigu zenbat diren, baina milaka batzuk dira. Udara hasi zenetik batez ere Ekialde Hurbiletik eta Afrikatik ihesi Europara etorri asmoz hildako pertsonen kopuruaz mintzotzen gara. Beste askok, hamaika arazo eta oztopo gainditu ostean, euren helburua lortu dute. Azken asteotan istorio izugarriak ezagutu eta burutik nekez kendu daitezkeen irudiak ikusi ditugu. Esaterako, Turkiako kostaldeko hondartza batean agertutako mutil koskorraren hilotzarena. Zoritxarrez, hura bezalako argazkiak eta egorak egunero gertatzen dira, kasurik gehienetan oharkabean igarotzen diren arren.

Aipatutako irudiak eta istorioak bizi dugun mundu gaixo honen adierazle dira. Europara bidean hildako lagunak gosetik, miseriatik edo gerratik ihes egin nahi zuten. Eta ezin dugu ahaztu Europak erantzukizun zuzen-zuzena duela arazo horietan.

Kapitalismo basatiak eragindako sistema bidegabe honek milioika lagun miseria gordinenera behartzen ditu; egungo merkataritza eredu ezin da ulertu herrial-

**Las imágenes de personas que fallecen en su intento de llegar a Europa huyendo de la guerra o la pobreza son una metáfora de este mundo injusto**

de askoren aberastasuna ustiatu eta bere esku-lan merkea gabe; herrialde aberastuen elite politikoez eta ekonomikoez mota guztietako gerrak eta parte-hartze militarrek sustatzen dituzte interes geopolitikoengatik; eredu kapitalistak sortzen duen aldaketa klimatikoak herrialde askotako lagunak euren lurra uztera derri-gortzen ditu, bizirauteko gutxiengo baldintzak suntsitzen ari direlako...

**Egoera horiek guztietatik ihesean hil dira**

Afrikatik edo Ekialde Hurbiletik Europara joan nahi zuten lagunak. Eta, esan bezala, agerikoa da afera horietan Europak zeresan handia duela, oso handia. Horregatik Europak ahalegin berezia egin beharko luke gatazka hauek atzean utzi nahi dituzten pertsonen egoera konpontzen. Zoritxarrez, azken egunetan ikusi, entzun eta irakurri ahal izan dugunaren arabera egoera horretatik urrun gaude.

Izan ere, horretarako, beste hamaika gauzetarako bezala, borondate politikoa behar da. Sarri askotan aipatzen dugu Europaren proiektua goitik behera birdefinitu behar dela. Azken asteetako gertakariak horretarako akuilu izan beharko lukete. Europa osoan zehar jendetza bat mobilizatu da interes ekonomiko, politiko eta ideologikoak dituen drama honi konponbide bat bilatu asmoz. Itsasoan itotzen diren, duten apurra gainean hartuta Europa oinez zeharkatzen duten edo kamioietan ezkutatuta atzematen dituzten pertsona horien atzean irudi bat baina gehiago dago: bizi dugun mundu honen metafora.